



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO MARTXOAREN 22AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2016KO MARTXOAREN 8KO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2016ko martxoaren 8ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- MARIA PURIFICACIÓN ALCORTA LIZARGARATERI IGOGAILUA INSTALATZEAGATIK DIRU-LAGUNTZA EMATEA.

Esp. Zkia.: GZ.06/2015-0338

Ikusirik

LEHENA: 15.139.558-S NAN zenbakia duen Maria Purificacion ALCORTA LIZARGARATE jaun/andreak 2015eko azaroaren 10ean Igogailuak instalatzeko diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen Usurbilgo Udalean.

BIGARRENA: Maria Purificacion ALCORTA LIZARGARATE-k diru-laguntza hau eskatzeko bete behar diren baldintzak betetzen ditu:

- Usurbilen, igogailua jarri nahi den etxean gutxienez 6 hilabeteko antzinatasunarekin errolatuta egotea eta bertan bizitzea.
- Igogailurik gabeko etxebizitza batean bizitzea.
- Udalerri berean igogailua duen bigarren etxebizitzaren jabe ez izatea.

HIRUGARRENA: Interesatuak ondoko agiriak aurkeztu ditu eskaera bideratu ahal izateko:

- Eskaera
- Nortasun Agiriaren fotokopia
- Igogailua jarri nahi den etxean bizi izatearen egiaztageria: Etxebizitzako titulartasuna edo titularrarekin harremana egiaztatzen duen agiria.
- Diru sarreren agiriak
- Hazienda Ordezkaritzaren ondasun agiria



Usurbilgo Udala



LAUGARRENA: 2016ko otsailaren 8an ospatutako Tokiko Gobernu Batzarrean Muna Lurra kalea 10 etxean ezarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea erabaki zen.

BOSGARRENA: Teknikariak ALDEKO TXOSTENA egin du eta Baremo ekonomikoan oinarrituz 420,70 €-tako (% 70a) diru-laguntza ematea proposatu du.

Eta kontutan harturik

LEHENA.- 2002ko azaroaren 6an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako "Igogailuak instalatzen dituztenei banakako laguntzak emateko arautegia".

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENA: 15.139.558-S NAN zenbakia duen Maria Purificacion ALCORTA LIZARGARATE jaun/andereari Igogailua jartzeko 420,70 €-tako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Diru-laguntza honen ordainketa 2016ko aurrekontuko 8000.780.231.03.01.2016 partidaren bizkar gain egitea (A 60-2016)

HIRUGARRENA: Erabaki hau kontuhartzaileari eta interesatuari jakinaraztea.

3.- ISABEL GARCÍA CALDERÓN IGOGAILUA INSTALATZEAGATIK DIRU-LAGUNTZA EMATEA.

Esp. Zkia.: GZ.06/2015-0337

Ikusirik

LEHENA: 76.221.776-Y NAN zenbakia duen Isabel GARCIA CALDERON jaun/andreak 2015eko urriaren 8an Igogailuak instalatzeko diru-laguntza eskaera aurkeztu zuen Usurbilgo Udalean.

BIGARRENA: Isabel GARCIA CALDERON-ek diru-laguntza hau eskatzeko bete behar diren baldintzak betetzen ditu:

- Usurbilen, igogailua jarri nahi den etxean gutxienez 6 hilabeteko antzinatasunarekin errolatuta egotea eta bertan bizitzea.
- Igogailurik gabeko etxebizitza batean bizitzea.
- Udallerri berean igogailua duen bigarren etxebizitzaren jabe ez izatea.

HIRUGARRENA: Interesatuak ondoko agiriak aurkeztu ditu eskaera bideratu ahal izateko:



Usurbilgo Udala



- Eskaera
- Nortasun Agiriaren fotokopia
- Igogailua jarri nahi den etxean bizi izatearen egiaztagiria: Etxebizitzako titulartasuna edo titularrarekin harremana egiaztatzen duen agiria.
- Diru sarrerren agiriak
- Hazienda Ordezkaritzaren ondasun agiria

LAUGARRENA: 2016ko otsailaren 8an ospatutako Tokiko Gobernu Batzarrean Muna Lurra kalea 10 etxean ezarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea erabaki da.

BOSGARRENA: Teknikariak ALDEKO TXOSTENA egin du eta Baremo ekonomikoan oinarrituz 360,00 €-tako (% 60a) diru-laguntza ematea proposatu du.

Eta kontutan harturik

LEHENA.- 2002ko azaroaren 6an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako "Igogailuak instalatzen dituztenei banakako laguntzak emateko arautegia".

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENA: 76.221.776-Y NAN zenbakia duen Isabel GARCIA CALDERON jaun/andereari Igogailua jartzeko 360,00 €-tako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Diru-laguntza honen ordainketa 2016ko aurrekontuko 8000.780.231.03.01.2016 partidaren bizkar gain egitea (A 60-2016)

HIRUGARRENA: Erabaki hau kontuhartzaileari eta interesatuari jakinaraztea.

4.- IGEPAK, S.A. ENPRESARI ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO LEGARDA 1 – AITZEEZARRA 2 HELBIDEAN AEROSOLAK EKOIZTEKO JARDUERA ZABALDU AHAL IZATEKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2014-0329

IGEPAK, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Zumartegi industrialdeko Legarda 1 – Aitezearra 2 helbidean aerosolak ekoizteko jarduera zabaldu ahal izateko obretarako udal baimena eskatzen du.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko martxoaren 8an, Zumartegi industrialdeko Legarda 1 – Aitezearra 2 helbidean aerosolak ekoizteko jarduera zabaltzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

TXOSTEN TEKNIKOA



Usurbilgo Udala



Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2016ko martxoaren 17an emandako txostenean ondorio hauek bildu ditu:

UA2016_04_13

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK
IGEPAK ENPRESAK ZUMARTEGI INDUSTRIALDEAN DUEN
PABILOIA JARDUERA HANDITZERA EGOKITZEKO PROIEKTUA
ETA DOKUMENTAZIO GEHIGARRIARI TXOSTENA

KOKAPENA: Aitezarra 4, Zumartegi Industrialdea, Usurbil.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2014-171

ESKAERA DATA: 2016ko martxoaren 14a.

EXEKUZIO PROIEKTUAREN EGILEA: Pedro Idarreta Lapazaran
ingenieria (ASMATU S.L.)

ELKARGO OFIZIALAK IKUS-ONETSIA: Exekuzio proiektua CICCAPPV
2014-04-11

EXEKUZIO PROIEKTUAREN PEM: 367.707,62euro

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 1.486,95euro

FIDANTZA (%120): 1.784,34euro

(...)

ONDORIOAK

Ondorioz, goian aipatutakoari jarriatuz, esan beharra dago:

1. Txosten hau **KONTRAKOA** da legeztagarria ez den egungo eraikigarritasun soberakinari dagokionean. Zehazki baimengarria ez den 295,6 m²-ko eraikigarritasun soberakina hauteman da solairuarean. IGEPAK jardueraren handitzea egokitze obra baimenak ezingo du inolaz ere legeztagarria ez den azalera eraikia kontsolidatu, ezta azalera horretan obrak egiteko edo erabilera emateko ahalbidetu ere. Zentzu horretan, 2/2006 Lurzoruaren Legeak 219. artikulua eta hurrengoetan finkatutakoak lirateke aplikagarriak.
2. Obra Proiektuari **ALDEKO** txostena idazten zaio gainontzeko alderdian, beti ere honako baldintzak betetzen diren artean:
 - **1000/2010** Elkargoen Ikus-Onespen Derrigorrezkoaren Erret Dekretua bete beharko da, dokumentazio gehigarria Elkargo Ofizialak ikus-onetsia aurkeztuz **HAMABOST EGUNEKO EPEAN**.
 - Eskuhartzeak egungo eraikinaren bolumena mantendu beharko du.
 - Ezinbestean bete beharko da *Suteen aurkako babeserako eraikin industrialetako Erregelamendua*.
 - Behe solairuako administrazio guneak **68/2000** Irisgarritasun Dekretuaren III. Eranskineko 1.3. artikulua



Usurbilgo Udala



bete beharko du eta ondorioz,II. Eranskineko 3.12. artikulua.

- **Administrazioguneak EKT bete beharko du eta orohar, eraikinean eskuhartzeak aplikagarria zaion gainontzeko araudia.**
- **112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.784,34€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.**
- **Obra baimenaren epeak:**
 - **Obrak hasteko gehiengo epea: 6 hilabete**
 - **Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 6 hilabete.**
 - **Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.**

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2016ko martxoaren 17an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrari honako proposamena onartzea proposatzen diot:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: IGEPAK, S.A. enpresari Zumartegi industrialdeko Legarda 1 – Aitezarra 2 helbidean aerosolak ekoizteko jarduera zabaldu ahal izateko obretarako udal ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
 - 1000/2010 Elkargoen Ikus-Onespen Derrigorrezkoaren Erret Dekretua bete beharko da, 2016ko martxoaren 11an aurkeztutako dokumentazio gehigarria Elkargo Ofizialak ikus-onetsia aurkeztuz.
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 471,60 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.784,34 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.



Usurbilgo Udala



1.784,34 €-ko fidantza, Kutxabaneko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrantean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2014-0171* jarriaz kontzeptuan.

- ASMATU S.L.P. ingeniariak 2014ko martxoan idatzitako Exekuzio Proiektuari (CICCPV 2014-04-11) eta 2016ko martxoaren 11an aurkeztutako dokumentazio osagarriari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariek bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Udal baimenik ez duen eta legeztagarria ez den 295,6 m²-ko eraikigarritasun soberakina hauteman da solairuardean. Jardueraren handitzea egokitzeko obra baimen honek **ez du inolaz ere legeztagarria ez den azalera eraikia kontsolidatzen**, ezta azalera horretan obrak egiteko edo erabilera izateko baimenik ematen.
- Eskuhartzeak egungo eraikinaren bolumena mantendu beharko du.
- Ezinbestean bete beharko da *Suteen aurkako babeserako eraikin industrialetako Erregelamendua*.
- Behe solairuako administrazio guneak 68/2000 Irisgarritasun Dekretuaren III. Eranskineko 1.3. artikulua bete beharko du eta ondorioz, II. Eranskineko 3.12. artikulua.
- Administrazio guneak EKT bete beharko du eta orohar, eraikinean eskuhartzeak aplikagarria zaion gainontzeko araudia.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainera jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - a. Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - b. Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - c. Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - a) Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - b) Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.



Usurbilgo Udala



Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- c) Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzazko obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- d) Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.

- e) Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.

- f) Lurralde kontribuzioaren alta.

- g) Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.